

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

SORMENA BOST URTEKO GELAN

Musika, mugimendua eta jolasa

Egilea: Iker Prior Sánchez

Zuzendaria: Ana Urrutia Rasines

Leioan, 2014ko ekainaren 12an

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA



Creative Commons Reconocimiento-
NoComercial-SinObraDerivada
4.0 Internacional.

Aurkibidea

| | |
|------------------------------------------------------------------------------|----|
| Sarrera eta justifikazioa | 3 |
| 1. Esparru teorikoa | 4 |
| 1.1 Musika | 4 |
| 1.1.1 Zergatik musika? Musika eta sormena | 5 |
| 1.1.1.1 “Evocaciones sonoras” | 6 |
| 1.2 Mugimendua | 6 |
| 1.2.1 Mugimendua eta garapen kognitiboa | 6 |
| 1.2.2 Mugimendua eta musika | 7 |
| 1.3 Jolasa | 8 |
| 1.3.1 Jolasa eta musika | 8 |
| 1.4 Proiektuarekin lotura Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumarekin | 9 |
| 1.4.1 Gaitasunak | 9 |
| 1.4.2 Helburuak | 10 |
| 1.4.3 Edukiak | 12 |
| 1.4.4 Ebaluazio irizpideak | 14 |
| 2. Metodologia | 14 |
| 2.1 Kokapena | 14 |
| 2.2 Metodologia irizpide orokorrak | 14 |
| 3. Lanaren garapena | 15 |
| 4. Bizipenaren ebaluazioa eta ondorioak | 19 |
| 4.1 Bizipenaren ebaluazioa, jolasez jolas | 19 |
| 4.2 Ondorioak | 23 |
| 5. Erreferentzia bibliografikoak | 25 |
| ERANSKINAK | |
| 1. eranskina. Ikasleek egindako ebaluazioa | 27 |
| 2. eranskina: Irakasleak egindako ebaluazioa | 28 |
| 3. eranskina: Jolasen abestien letrak eta praktikako argazkiak | 30 |
| 4. eranskina: Esker ematea | 38 |

SORMENA BOST URTEKO GELAN

Musika, mugimendua eta jolasa

Iker Prior Sánchez

UPV/EHU

Ez da arraroa, egungo eskolan, nolabaiteko aukera eza aurkitzea Haur Hezkuntzako haurren sormena garatzeko. Aukera eza honi erantzuna emateko asmoz sortu da proiektu hau. Hiru bitarteko nagusi uztartzea proposatzen da: alde batetik, musika, sormenaren garapenerako aukera anitz eskaintzen dituelako; bestetik, mugimendua, haurren garapenen fisiko eta kognitiboan berebiziko garrantzia duen funtzioa; eta, azkenik, jolasa elementu integratzaile bezala, gizakiok hartzaroen dugun oinarrizko jarduera. Ondoren proposatzen diren jolasak zehazki sortuak, aukeratuak eta moldatuak izan dira sormena era ludikoan garatzeko. Barakaldoko Alkartu Ikastola Publikoan praktikan jarri eta gero, esan dezakegu hurrek ia mugarik gabeko sormena garatu dezaketela, irakasleak bitarteko egokiak eskura jartzen badizkie.

Sormena, musika, mugimendua, jolasa, haur hezkuntza

No es raro encontrar en la escuela hoy en día una cierta carencia de posibilidades para el desarrollo de la creatividad en el niño de Educación Infantil. Este proyecto ha sido creado con la intención de dar respuesta a esta carencia. Se propone combinar tres medios principales: por una parte, la música, ya que ofrece múltiples posibilidades para el desarrollo de la creatividad; por otra parte, el movimiento, función de capital importancia en el desarrollo físico y cognitivo del niño; y, por último, el juego como elemento integrador, una actividad básica que los seres humanos tenemos en la infancia. Los juegos que a continuación se proponen han sido creados, seleccionados y adaptados para el desarrollo de la creatividad de una forma lúdica. Después de ser puestos en práctica en la Ikastola Pública Alkartu de Barakaldo, podemos decir que los niños pueden desarrollar una creatividad casi ilimitada, si el docente pone a su disposición los medios adecuados.

Creatividad, música, movimiento, juego, educación infantil

It is not strange to find at school nowadays some lack of possibilities for the Pre-School's child to develop creativity. This project has been created with the intention of giving an answer to this lack of possibilities. It is proposed to combine three main means: on one hand, music, because it offers multiple possibilities to develop creativity; on the other hand, motion, which is a very important function in child's physical and cognitive development; and, finally, the game as an integration element, a basic activity in human's childhood. The games that will be proposed next, have been specifically created, selected and adapted in order to develop creativity in a playful way. After putting them in practise in the Alkartu Public Ikastola of Barakaldo, we can say that children can develop creativity nearly without limits if the teacher provides them with the suitable means.

Creativity, music, motion, play, pre-school education

Sarrera eta justifikazioa

Ohikoa da haur hezkuntzako gelan musikarekin lotutako jarduerak erabiltzea, haurrentzat onurak dakartzatela jakina baita eta beraien gustuko ekintzak izaten direlako. Baina onura hauek zeintzuk diren ez da beti argi izaten, eta heziketa eraginkorra izan dadin, irakasleak helburu didaktiko batzuk lortzea bilatu behar du, xede zehatzen bitartez. Xede hauetan arreta jartzen ez bada, jarduerak berez nekez lortuko dute helburuak betetzea.

Arreta galtze hau hainbat arrazoiengatik eman daiteke: umeak ondo pasatzea helburu nagusi bihurtzen delako; irakasleak bere lanera ohitzean, urtero jarduera berberak errepikatzen dituelako, helburu eta xedeak bidean ahazten eta galtzen direlarik; edota irakasleak prestakuntza gabeziak dituelako.

Egoera posible hauei erantzuna emateko asmoz, baita haur hezkuntzako klaseei aberastasuna ematea bilatzen duen irakasleentzat, proiektu honetan musikaren bitartez helburu nagusi bat lortzea bilatzen da: haurraren sormena garatzea.

Beste aldetik, proposatzen diren jarduerak gauzatzeko, haurtzaroan berebiziko garrantzia duen beste elementu bat erabiliko da, jolas motorra, hain zuzen ere. Jolasaren garrantzia heziketa fisikoko irakasle bezala izan dudana esperientziarekin baieztatu dezaket: haurrek bere nortasuna adierazteko modu garrantzitsua dute jolasa, eta, bestetik, psikomotrizitatea lantzeko modu eraginkorra izan daiteke. Bi esperientzia hauen konbinaketatik (Heziketa fisikoa eta Haur Hezkuntzako gradua) jaiotzen da lan hau.

Proiektu berritzaile hau posiblea da, halaber, zorionez gaur egun Haur Hezkuntzan modu globalean egiten delako lan haurrarekin, honen garapen osoa eta orekatua lortzeko asmoz. Honek ikasleari ikasteko hamaika aukera eskaintzen dio, eta proiektu honetan, musika, jolasa eta mugimendua elkarrekin batera lantzea ahalbidetzen du.

Ondoren zehaztuko den proiektua Haur Hezkuntzako bost urteko gelarako pentsatua da; halere, moldapen batzuk eginda ikasle gazteagoekin ere egiteko baliogarria izan daiteke.

1.- Esparru teorikoa

1.1 Musika

Musika modu erraz eta laburrean definitu behar badugu, “bitartekotzat soinua darabilen arte bat” dela esan dezakegu. Schafer konpositore eta pedagogoa (1986), berriz, honela zehazten du musika zer den: “Música es una organización de sonidos (ritmo, melodía, etc.) producida con la intención de ser escuchada” (21or.). Musikagile kanadar honek azken aspektu hau azpimarratzen du, asmoarena: bere ustez, gainontzeko soinuak (kalekoak adibidez) intzidentalak diren bitartean, musika entzuna izateko pentsatua dago. Zentzu berean, Delalande-k (1995) ondokoa aipatzen du: “lo que garantiza que se trata de música, es el hecho de que el gesto sea repetido y variado” (27or.). Beraz, esan dezakegu musika norbaitek entzuteko egina dela, eta denboran zehar errepikatzen eta aldatzen doa.

Musikari buruz ari garenean, bestalde, ezinbestekoa da belarria aipatzea. Entzumenaren organo hau, agerian dago eta beti irekia. Entzutezko horizontean dauden soinu guztiak aditu egiten ditu. “Su única protección es un elaborado sistema psicológico que filtra sonidos indeseables para permitir que nos concentremos en aquello que realmente deseamos escuchar” (Schafer, 1998, 12or.).

Musikaren elementu nagusiak bi dira:

- Soinua: Belarrira heltzen zaizkigun uhinak dira. Uhin hauek gorputz soinudun baten bibrazioek eragiten dituzte eta ingurunearen bitartez (aire, likido edo solido) hedatzen dira.
- Isilunea: Isilunerik gabe ez legoke musikarik, musikaren kontrastea da. Schaferrek (1986), elementu honen garrantzia gogorarazten digu: “Recuerden la importancia del silencio en la música. Los silencios son como las ventanas en arquitectura; permiten que pase la luz” (40or.).

Hurrengoa, soinuaren propietateen sailkapena da, Cordantonopulos (2002) musika irakasleak egindakoan oinarrituta:

- Altuera: Soinuaren afinazioa da: grabea, ertaina edo agudoa.
- Iraupena: Zenbat denboran zehar mantentzen den soinua.
- Intentsitatea: Bolumenaren sinonimoa da. Ahula edo ozena izan daiteke.

- Tinbrea: Frekuentzia eta intentsitate bereko soinu batean instrumentu bat beste batetik ezberdintzea ahalbidetzen du.

Bestalde, kontutan hartu behar dugu gure musikarekiko jarrera baldintzatuta dagoela “por los sonidos del medio propios de nuestro siglo, generación y áreas geográficas” (Schafer, 1998, 58or.) eta beraz, jarrera hauek aldatzen doaz.

1.1.1 Zergatik musika? Musika eta sormena

Gizakiaren lehen urteak munduan itzaropenez betea dago: etorkizuna aukeraz betea daukagu eta gure sormena zabala da, mugarik gabekoa. Urteak aurrera egin ahala, ordea, espezializatzen joaten gara, eta gizartearen eskakizunei moldatzen ditugu gure bertuteak eta ahuleziak. Gizartearentzat baliagarria dena bultzatzen da eta gainontzekoa baztertu egiten da. Honek gizabanako bakoitzak berezko dituen potentzialtasun ugari bidean galtzea dakar, ez zaizkio bere onena emateko aukerak zabaltzen, eta sormena galtzen da. Horrela dio Schaferrek (1998) ikasle nagusien hezkuntza prozesuari erreferentzia eginez: “Las habilidades improvisatorias y creativas –atrofiadas luego de años de desuso- son también redescubiertas”(11or.). Zentzu honetan, autore honek berak (1998) ariketa bat egin zuen ikasleekin: etxeko gelan batean egonda, ikasleek momentuan entzuten zuten edozein soinu idatzi behar zuten. Emaitzak ondokoak izan ziren: “[...] mientras muchos de los adultos no captaron los sonidos más familiares –los sonidos de su propio cuerpo, su respiración, los latidos de su corazón, su voz, su vestimenta, etc.- David (9) y Anthea (12) fueron muy sensibles a tales sonidos” (18or.). Ondorioak adierazgarriak dira: entzuteari behar bezalako garrantzia ematen ez bazaio, txikitzen ditugun trebetasun naturalak galdu egiten dira.

Haur Hezkuntza, beraz, sormena bultzatzeko aukera paregabea da; edo, hobe esanda, haurraren sormena garatzea izan beharko luke helburu nagusia. Badirudi, tamalez, hori ez dela sarritan gertatzen: Sir Ken Robinson hezitzaileak TED (2007) konferentzietan adierazi zuen bezala, eskolak sormena hiltzen du, gaitasun akademikoa ez dena alde batera uzten duelako sarritan. Halaber, ez dugu ahaztu behar haurrak etorkizuneko mundurako prestatu behar ditugula eskolan, baina, izugarritzko abiaduran aldatzen ari den mundu honetan, ez dakigu ezta nola izango den mundua urte bakar batzuen buruan: ziurgabetasun horri aurre egiteko, sormena dugu arma boteretsua;

Robinsonen ustez, sormenari alfabetizazioari bezainbesteko garrantzia eman beharko litzaioke eskolan. Eta sormena garatzeko modurik onena arteak dira.

Arteek umearen garapen osoan duten garrantziarekin bat datoz Conde, Martín eta Vicianak (1997), eta motrizitatearen garrantzia ere azpimarratzen dute: “Estamos convencidos de que a través de la motricidad del niño, y de su capacidad artística se articulan el resto de aprendizajes, contribuyendo a la formación integral de la personalidad” (20or.). Hau, bada egungo hezkuntza sistemaren kontzepzioaren kontra doan ikuspegia, non garapen fisikoari eta adierazpen artistikoari garrantzi txikia ematen zaien, beste arlo ustez garrantzitsuagoi (zientziak, hizkuntzak...) denbora kentzen dietelako.

Eskolaren lana da beraz, haurrari arteak -eta zehazki kasu honetan, musika-balioesteko eta gozaten ikasteko aukerak eskaintzea. Horrela iritzi du Delalandek (1995): “Lo que deseamos para la escuela es comenzar, en jardín de infantes [...] por sensibilizar los niños a la música” (9or.). Dena den, ez dugu ahaztu behar familiak ere balioespen prozesu honetan inplikatzeko beharrezkoa dela; eskolak eta familiek norabide berean bultzatzen ez badute, nekez lortuko da helburua.

1.1.1.1 “Evocaciones sonoras”

Judith Akoschky (2005) pedagogoak honela azaltzen du termino hau: “En nuestra memoria acumulamos una vastísima información sonora. Al escucharlos, reconocemos múltiples sonidos que nos remiten a experiencias anteriores” (21or.). Honek aukera ematen digu haur hezkuntzako gelan sormena soinuaren bitartez garatzeko. Adibidez, ume batek txakurraren hotsa imitatzen duenenean, soinu horrekiko esperientzia erabiliko du, errealitateari ahalik eta gehien hurbiltzeko. Baina ekoiztutako soinua, berea bakarrik izango da, zerbait berria: ez dira guztiz berdinak diren bi soinu egongo. Beraz, soinu hori ekoizteko prozesua, haurrak sormena erabili duela esan dezakegu.

1.2 Mugimendua

1.2.1 Mugimendua eta garapen kognitiboa

Jakina da hezitzaile eta pedagogoen artean mugimenduaren eta adimenaren artean dagoen lotura estua. Wallonek (1980) adierazten duenez, “hasta el momento en que

aparece la palabra, el movimiento es lo único que puede dar fe de la vida psíquica infantil” (128or.).

Motrizitatearen garapenak, beraz, berebiziko garrantzia hartuko du Haur Hezkuntzan. Bizitzako lehenengo urteetan, umeak hazten eta aldatzen ari dira, beraien limiteak bilatzen eta gainditzen saiatzen ari dira. Jarduera motore honi esker, garuna garatuz doa, eta ondorioz garapen kognitiboa: “El cerebro crea nuevas conexiones si se practican nuevos movimientos, y al practicar esos nuevos movimientos, la mente se vuelve más ágil” (Fuentes, 2008, 113or.).

1.2.2 Mugimendua eta musika

Mugimenduaren eta musikaren artean lotura estua aurkitu dezakegu ekoizpenaren oinarrian bertan, “cualquier sonido es el resultado de un gesto o un movimiento” (Delalande, 1995, 31or.). Zentzu berean, Schaferrek (1998) ondokoa aipatzen du: “Todos los objetos de la tierra tienen un alma sonora –por lo menos, todo objeto que se mueve, suena” (50or.).

Beste autore batzuk lotura honetan sakontzen dute. Juradok (1996) adierazten duenez, “existe una relación evidente entre la música y el movimiento, ya que ambos se basan en relaciones espacio-temporales” (31or.). Modu berean, Condek et al. (1997) gehiago zehazten dute, erritmoa bi arloen arteko lokarri bezala hartuz: “El ritmo [...] al ser el nexo de unión entre la actividad musical y la corporal” (23or.). Lotura honi esker bi arloak modu globalean landu daitezke modu naturalean.

Musikak mugimendua eragiten du modu espontaneoan haur hezkuntzako haurarengan: lehenengo urtetik aurrera, gutxi gorabehera, musikak kulunkatzeari eragiten dio, mugimenduak txikiak izaten dira eta gorputz osoa erabiltzen du mugimendu horiek egiteko; haur hezkuntzako bigarren zikloan dagoenean, ordea, haurrak musikaren erritmoarekin sinkronizatzen du kulunkatzea, mugimenduak handiagoak izaten dira, jauziak egiten ditu eta gorputz atalak bereizita erabiltzen hasten da. Honi esker, irakasleari umeak musika balioesten ikas dezan egin beharko duen lana erraztu egiten zaio.

Gainera, umeak gauzak egiteko irrikan egoten dira, mugitzeko (beraietzako plazer iturria), eta honetaz baliatu gaitzke irakasleak musika entzuteko motiba daitezen, edo, beste era batean esanda, bizitzako lehenengo urteetan haurrek soinuekiko duten

berezko interesa mantentzeko. Musika eta mugimendua konbinatzen dituzten jarduerak erabiliz haurrak dibertitzea lortzen badugu, musikarekiko sentsibilizazioaren alde egingo dugu: “La atención es sobre todo una cuestión de motivación. Escuchamos lo que tenemos buenas razones para escuchar, y un despertar de la escucha musical consiste en multiplicar las razones por las que escuchar” (Delalande, 1995, 12or.).

1.3 Jolasa

Jolasa funtsezko jarduera da haurtzaroan. Lleixa-ren (2000) ustez, gainera, “Jolasak helduarengan ere irauten du eta egoera alienatzaileetan bakarrik galtzen da” (58or.). Halere, oso eginkizun ezberdina dauka helduengan eta haurrengan. Helduak bere eguneroko bizitzan erabili ez duen energia askatzeko erabiltzen du jolasa, edota besterik gabe ondo pasatzeko.

Haurrak, berriz, bere zeregin nagusia du jolasa; esan daiteke bere errealitatean jolasa dela bere bizitza. Barandiaranek eta Manterolak (1993) horrela iritzi dute:

Gizakiak jokoa du lagun jaio eta gehiago, munduan dirauen artean; hala ere, ez da gauza bera jokoa, haurrentzako eta sasoikoentzako. Nagusiek [...] euren olgetak, edo lanean bota ez dituzten izerdiak botatzeko, edo gogoko dituzten ariketekin lanaren nekeak eten eta arintzeko izan ohi dira. Haurrak, ordea, jokoa denbora beteko ekintza du, berezkoena gainera [...] ez da denbora-emangarri hutsa; gehiago oraindik ere, egun osoko ihardunaldia du; tokiak eta denborak bat egiten duen ekintza (55or.).

Halaber, kontutan hartu behar dugu hurrek beraien harreman sozialak eraikitzen dituztela jolasaren bitartez. Haur Hezkuntzako gelan proposatutako jolasek, beraz, lankidetzeta, errespetua eta tolerantzia bultzatu behar dute. Erraza da orduan ikustea jolasari eman behar zaion garrantzia.

1.3.1 Jolasa eta musika

Piageten haurtzaroko etapetan oinarrituz, Delalandek (1995) ondoko sailkapena egiten ditu musika arloko jolasekin:

- Soinuaren eta keinuaren ikerketa (jolas “procedimental” edo “sensorio-motor”). Haurrak ingurunea arakutzen du eskuen eta keinuen bitartez eta eskema motoreak bereganatzen ditu ingurunea menderatzeko. Jolas forma hau umearen bigarren urtera arte dagoen bakarra da, horregatik, nahitaezkoa egiten da lehenengo zikloan. Behaketa, manipulazioa eta sormena lantzen da.

- Adierazpena eta esangura (jolas sinbolikoa). Jolas mota honetan errealitatea imitatzen da. Umearen bigarren urtetik aurrera ematen da, gutxi gorabehera. Adierazpena eta esangura lantzen da.
- Jolas arautua. Bosgarren urtetik aurrera da nagusi, batez ere lehen hezkuntzan. Haur hezkuntzan arauak xumeak izan behar dira. Soinuaren antolaketa lantzen da. Esan beharra dago, sailkapen hau haurren adin bakoitzean nagusi den jarduerari erreferentzia egiten diola eta jarduerak gehigarriak direla, hau da, etapa bat gainditzeak ez du esan nahi aurreko jarduerak desagertzen direnik; hauek mantendu egiten dira.

Aipatutako jarduerak modu espontaneoan ematen dira umean, berez agertzen dira; honek, musika hezkuntzako perspektiba tradizionalaren norabideari buelta ematen dio: “educar a los niños no es sacarlos de un estado de nada musical en el que se supondría están [...] sino, por el contrario, desarrollar una actividad lúdica que existe entre ellos y que es finalmente la fuente misma del juego, la ejecución musical” (Delalande, 1995, 28or.).

1.4 Proiektuaren lotura Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako curriculumarekin

1.4.1 Gaitasunak

Proiektu honek ikasleek ondorengo gaitasunak eskura ditzaten lagunduko du:

- d) Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna.
- f) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna jolasen bitartez landuko da, non beraien artean euskaraz hitz egitea eta eztabaidatzea modu naturalean emango den. Gorputz adierazpenerako aukerak ere sortuko dira.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, eguneroko liskar txikien konponketaren bitartez lortuko dute, baita jolasaren bitartez balore batzuk eskuratzen (errespetua, solidaritatea...)

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna jolasaren bitartez eskuratuko dute: esperientzia anitzen bitartez nor bere burua ezagutzuz, emozioak erregulatzen ikasiz, arriskuak neurtuz erabaki egokiak hartzeko eta arduratsuak izaten ikasten.

1.4.2 Helburuak

Ondokoak proiektu honekin lotutako helburu orokorrak dira:

- a) Bere gorputza ezagutzeko, gorputzak ematen dituen aukerak zein diren eta desberdintasunak errespetatzen ikas dezan.
- b) Familia-, natura- eta gizarte-inguruneari behatzeko eta horiek aztertzeko, eta baita horiek ezagutzeko interesa izateko ere, inguruko gizarte- eta kultura-jardueretan modu aktiboan eta apurka-apurka parte har dezan.
- e) Ingurukoekin harremana izateko eta bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako oinarrizko arauak barneratzeko, gatazkak modu baketsuan ebatzen treba dadin.
- f) Zenbait hizkuntzatan eta adierazpidetan komunikatzeko gaitasunak garatzeko.
- g) Trebetasun logiko-matematikoak eta irakurketa-idazketa ikasten hasteko, eta mugimendua, keinuak eta erritmoa lantzen hasteko, inguruan duen mundua uler eta interpreta dezan.

Halaber, ondoren esperientzia eremu bakoitzeko helburuak eta proiektuko eremu espezifikoak erlazionatzen dira:

| Curriculumeko eremuetako helburu orokorrak | Proiektuko helburu espezifikoak |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1. Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala eremua | |
| <p>1.2.– Gorputza kontrolatzen aurrera egitea, zentzumen-pertzepzioa garatzeko eta tonua, oreka eta mugimenduaren koordinazioa inguruko ezaugarrietara egokitzeko.</p> <p>1.3.– Bere gorputza eta gorputzaren zenbait funtzio ezagutzea eta adieraztea, ekintzarako eta adierazpenerako dituen aukerak eta mugak aurki ditzan.</p> | <p>1.2.1 Lokomozio orokorra garatzea.</p> <p>1.2.2 Ingurunean eta besteekin armonian eta doitasunez moldatzea.</p> <p>1.3.1 Oreka dinamikoa hobetzea.</p> |
| 2. Inguruaren ezaguera eremua | |
| <p>2.2.– Portaera sozialeko oinarrizko arauak arian-arian barneratzea, eta beren jokabidea arau horietara egokitzea, gero eta modu orekatuagoan eta hobean.</p> | <p>2.2.1 Jardueren eta jolasen arauak errespetatzea.</p> <p>2.2.2 Klase-kideak errespetatzea.</p> |
| 3. Komunikazioa eta adierazpena | |
| <p>3.2.– Gorputz-, plastika-, musika- eta teknologia-hizkuntzekin saiakuntzak egitea, haiekiko interesa erakustea eta erabiltzea, hartara, bai egoerak, bizipenak, beharrak eta inguruko elementuak adierazteko, bai eragin estetikoak eragiteko eta gozatzeko ere.</p> <p>3.8.– Plastikako, ikus-entzunezko, teknologiako, antzerkiko, musikako eta gorputzaren inguruko ekoizpenetan modu sortzailean parte hartzea hainbat teknika erabiliz, komunikazio-aukerak zabaltzeko eta kultura-egitatea ulertzen hasteko.</p> | <p>3.2.1 Gorputza erabiltzea musikarekin lotutako jolasetan, jarduera haiekiko interesa garatu dezan.</p> <p>3.8.1 Gorputzaren jarduera (errepresentazioa, erritmoa etab.) musikaren eskakizunei moldatzea.</p> |

1.4.3 Edukiak

| Curriculumeko edukiak. Eremua: Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala | Proiektuko edukiak | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|
| | Kontzeptuak | Prozedurak | Jarrerak |
| <p>1. blokea: Gorputza eta norberaren irudia</p> <p>– Norberaren ezaugarriak balioesten eta onartzen joatea, bai eta norberaren aukerak eta mugak ere. Norberaren gaitasunean eta aukeretan konfiantza izatea, eskuragarri dituen eginkizunak eta ekintzak gauzatzeko.</p> | <p>-Norberaren aukeretan konfiantza.</p> | <p>-Jolasen bitartez norberaren aukeretan konfiantza garatzea.</p> | <p>-Norberaren eta besteen aukerak eta mugak errespetatzea.</p> |
| <p>2. blokea: Jolasa eta mugimendua</p> <p>– Jolasaren bitartez ingurunea aztertzea: mugimen- eta zentzumen-jolasak, jolas sinbolikoak eta arauak dituztenak. Jolasa gozatzeko eta ingurukoekin harremana izateko bidetzat hartzea.</p> <p>– Konfiantza izatea norberak ekintzarako dituen aukeretan; eta parte-hartzea eta ahalegina egitea, nola jolasetan hala ariketa fisikoa egitean.</p> | <p>-Zentzumen-jolasak eta jolas sinbolikoak.</p> <p>-Jolasak: norbera ezagutzea.</p> | <p>-Jolasen bitartez ingurune fisikoa eta besteak aztertzea.</p> <p>-Jolasen bitartez norberaren gorputzarekin esperimintatzea.</p> | <p>-Jolasaren bitartez kideekin erlazionatzea.</p> <p>-Parte-hartze aktiboa.</p> |

| Curriculumeko edukiak. Eremua: Ingurunearen ezaguera | Proiektuko edukiak | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------|
| | Kontzeptuak | Prozedurak | Jarrerak |
| 3. blokea: Kultura eta bizitza gizartean – Mutikoen eta neskatilen artean harreman orekatuak ezartzea. Zenbait estereotipo eta aurreiritzi sexista identifikatu eta gaitzestea. | -Jolas kooperatiboak: hezkidetzak. | -Taldea mistoetan jolastea, beste sexuko kideekin naturaltasunez erlazionatzen. | -Taldea lanaren garrantzia. |

| Curriculumeko edukiak. Eremua: Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena | Proiektuko edukiak | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|
| | Kontzeptuak | Prozedurak | Jarrerak |
| 3. blokea: Arte hizkuntza - Mugimenduaren eta soinuaren arteko, eta hitzaren eta soinuaren arteko koordinazioa, jolasak, abestiak, errimak eta ipuinak abiapuntu hartuta. - Hainbat genero eta estilotako zenbait musika-lan arretaz entzutea. | -Jolasa eta musika: espazioa, erritmoa eta denbora. -Abestiak. | -Erritmoa espazioari eta denborari egokitzea. -Abestiak jolasteko erabiltzea. | -Jarduera erritmikoak ezagutzea eta gozatzea. -Musika balioestea. |
| 4. blokea: Gorputz hizkuntza - Jolas sinbolikoen bidez, pertsonaiak eta egoera errealak edo irudimenezkoak antzeztea. - Dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan eta gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzea. | -Jolas sinbolikoa eta dramatizazioa. | -Jolas sinbolikoaren bitartez antzeztea. | -Antzezpenarekin disfrutatzea. |

1.4.4 Ebaluazio irizpideak

1.2.1 / 1.3.1 Ea bere gorputza gero eta hobeto kontrolatzen duen, bai mugimenduan (lekualdaketak, martxa, lasterketa, jauziak...) bai eta atsedenean ere (oreka, jarreraren kontrola...)

1.2.2 Eguneroko jardueretan, ea eremuak, materiala eta tresnak behar bezala eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen dituen.

2.2.1 Ea jolas erraz batzuk zuzentzen dituzten arauak onartzen eta betetzen dituen.

2.2.2 Ea sentibera den inguruko gogo-aldarte, interes eta lehentasunekiko.

3.2.1 Ea parte hartzen duen, bai banaka, bai eta taldeka ere, musikako, gorputz-adierazpeneko eta adierazpen plastikoko jardueretan.

3.8.1 Ea beste trebetasun batzuk ere eskuratzen ari den, pixkanaka-pixkanaka.

2.- Metodologia

2.1 Kokapena

Proiektu hau Barakaldoko *Alkartu Ikastola Publikoan* jarri dut praktikan, bost urteko taldearekin. Eskola honek seiehun ikasle inguru ditu, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan bananduta. Eremu nagusiki erdaldunean kokatzen da eta eskolako hizkuntza nagusia euskara da.

2.2 Metodologia irizpide orokorrak

Proiektu honen oinarrian dago umearekin modu globalean lan egiteko asmoa. Musika eta soinua, mugimendua, adierazpena, sormena eta jolasa batera landuko dira oro har. Erabiliko den metodologia integratzailea izango da; horretarako, irakaslea beti prest egon beharko da ume bakoitzari sortu dakizkiokeen arazoekin laguntzeko eta behar denean jardueretan moldaketak egiteko, agertzen diren zailtasunak gainditzeko asmoz. Beste aldetik, bost urterekin umeak Piageten estadio aurreoperatorioan daude. Estadio hau egozentrismoak markatzen du, hau da, umeak uste du beste guztiek mundua beraiek ikusten duten bezala dutela. Horregatik, besteenganako errespetua sustatuko da, umei erakutsiz besteen ideiak, iritziak eta trebetasunak norberarenak bezain onargarriak direla.

Jardueretan, irakaslearen azalpenak laburrak izango dira eta beharrezkoak direnean bakarrik emango dira; orokorrean, ikaskuntza praktikan oinarrituko da. Aurkikuntzazko

ikaskuntza sustatuko da bereziki, eta osagarri bezala, eredu birsorkuntza eta aginte zuzena erabiliko dira zenbaitetan.

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, euskara izango da irakasleak erabiliko duen hizkuntza. Ikasleek ere euskaraz egitea espero da, nahiz eta ez zaien derrigortuko, bestela hizkuntza kriminalizatzeko arriskua egon daitekeelako, eta derrigortze honengatik hurrengo urteetan euskara erabiltzeari uko egin ahal diotelako. Kasu honetan, irakasleak ikasleei euskaraz egiten lagundu behar die, gomendioak erabiliz, baina inoiz ez behartuz.

Azkenik, proiektuaren ebaluazioa egiteko bi tresna erabiliko dira: umeei egindako ebaluazioa eta irakasleak egindako ebaluazioa, taula banaren bidez (ikusi 1. eta 2. eranskinak).

3.- Lanaren garapena

Ondoren, erabiliko diren jolasak eta jarduerak¹ aurkeztuko dira. Praktikaren luzapena lau egunekoa izango da, egun bakoitzean bi jarduera egiten direlarik.

1. saioa:

Hasteko, umeei ezaguna duten jolasa aukeratu da, berehala martxan jartzeko eta konfiantza hartzeko. Eguneko bigarren jolasa, ordea, berria da haientzat.

1. jolasa: Zubiri-zubiri: dantza edo abestu? (Lerro jolasa) 20'

Bi lagun aurrez aurre eskuetatik helduta, zubia osatzen. Besteak azpitik pasatzen joango dira ilaran. Musika gelditzean norbait zubian "atxilotuko" dute eta *abestu* edo *dantza egin* aukeratu beharko du; horren arabera zubiaren alde batean jarriko da. Guztiak zubia osatzen daudenean talde batekoak alde aurretik ezagutzen duten abesti bat abestuko dute, eta besteak dantza egingo dute.

- Abestia (ahotsa)
- Sormena: dantza librea

2. jolasa: Orkestra zuzendaria 15'

Ume batek orkestra zuzendaria nor den asmatu beharko du. Orkestrako kideek zuzendariaren keinuak imitatuko dituzte eta zuzendariak keinua aldatu ondoren

¹ Jolas bakoitzaren ostean elementu nagusiak aipatzen dira eta, beharrezkoa denean, materiala.

guztiak keinua aldatu beharko dute. Asmatzen duenean, ume guztiak azken imitatutako instrumentuaren soinua ahoz imitatzen saiatuko dira.

- Sormena: gorputz adierazpena
- Sormena: ahotsa → instrumentuen soinuen imitazioa (“evocaciones sonoras”)

2. saioa:

Egun hau hasteko, sokasalto jolasa aukeratu da. Ume batzuk zailtasunak izan ditzakete hemen, salto egiteko trebetasun handia eta koordinazioa behar delako. Umeen artean trebetasun maila oso ezberdinak espero dira; irakaslea esfortzua balioetsi eta haurrak animatu behar ditu. Bigarren jolasean, ordea, ez da trebetasun berezirik behar eta umeek gustuko izan ohi dute; horrela, umeek saioa pozik eta lasaitasunez amaitzea espero da.

3. jolasa: Sokaz beheraka olatuena (Sokasalto) 20'

Soka beheraka, olatuen antzera eragin behar zaio sokari.

Jolasa hastean, ume bat soka erdiaren ondoan egongo da: Soka eragiten diotenei hasiera emateko, ilaran itxaroten daudenek gorputz perkusioa erabiliko dute. Gorputz atal bat joko dute, hasieran poliki eta pixkanaka azkarrago. Ahal den azkarren egiten dutenean bat-batean gelditu, eta soka daudenak sokari eragiten hasiko dira.

- Abestia (ahotsa)
- Sormena: gorputz perkusioa
- Pultsua (soka)
- Materiala: soka

4. jolasa: Pasazazu haria 10-15'

Umeak lerroan eskutik helduta, lehenengoak horma baten kontra dauka esku bat; gainontzeko umeak “zubi” honen azpitik pasatuko dira. Lehenengo umeak ezin du eskua hormatik mugitu, beraz, buelta erdia emanda geratuko da. Gero, lehenengo eta bigarren umeen artean pasatuko dira, gero bigarren eta hirugarrenaren artean...

Azkenean guztiak lotuta geratuko dira. Askatzeko, alde zurretik adostu ditugun hitz magikoak erabiliko ditugu (sol-la notak erabiliz). Hitzak bi aldiz errepikatu behar dira, bigarrenetan ozenago esanez: orduan, partaideak askatu egingo dira.

- Abestia (ahotsa)
- Sormena: sol eta la notekin abestia asmatzea eta abestea

3. saioa:

Saio hau hasteko, berriro ere umeek ezaguna duten jolasa aukeratu da, horrela lehenbailehen jarriko gara martxan. Lehenengo jolasean eserita egongo direnez, bigarren zatirako mugimendu handiagoa eskatzen duen jolasa erabiliko dugu.

5. jolasa: Urtxintxaren jolasa: instrumentuak arakatzen (Korro jolasa) 15-20'

Jokalariak korroan eskuak emanda, abesten duten bitartean ezkerreko lagunari eskuan eman beharko diote erritmora. Abestia amaitzean, jo duten azkena altxatu egingo da eta lagun bat aukeratuko du musu emateko. Bi umeek borobilaren erdian dauden instrumentuen artean bana erabiltzeko aukera izango dute tarte batez.

Jolasak baditu bi parte: lehendabizi, berezko jolasa, umeek ezaguna dutena. Honi esker, bigarren zatian umeak irrikaz egongo dira norbaitek beraiei musu emateko eta horrela instrumentuak jotzeko aukera izateko. Jolasa amaitutzat eman baino lehen, instrumenturik jo ez duten umeei hauek erabiltzeko aukera emango zaie.

- Abestia (ahotsa)
- Sormena: musika tresnak arakatzea eta soinuak sortzea.
- Materiala: musika instrumentu ezberdinak (6-8)

6. jolasa: Joxe Martin (Lerro jolasa) 15'

Ikasleak bi ilaratan jarriko dira aurrez aurre. Bi ilaren artean, ikasle bat arituko da abestiaren istorioa antzezten. Ilaretakoek txaloka arituko dira.

Gorputz perkusioa erabiliz: Abestiak "Erreka bazterrean..." esaten duenean, erdian dagoen umea norbaiten aurrean jarriko da eta gorputz perkusioa konbinaketa sinplea erabiliko du, erritmoa jarraituz, adb, eskuekin izterretan jo eta txalo. Bikoteak imitatuko du, eta ondoren klase osoa. Abestiak "Emango dizut..." esaten duenean, txalo eta bikotearekin eskuak jo.

Abestia amaitzen denean, aukeratua izan den umea Joxe Martinen rola hartuko du eta berriro hasiko da jolasa. Ezingo da jadanik aukeratua izan den norbait aukeratzea.

Kasu honetan, abestia grabatua erabiliko da, jolasa dinamikoago egiteko asmoz, eta gorputz perkusioa erabiltzean abestiaren erritmora egokitzeko.

- Abestia (grabazioa)
- Sormena: gorputz perkusioa (inprobisazioa)
- Materiala: Kasetea, abestiaren grabazioa

4. saioa:

Azken saioko lehenengo jolasa da korro jolasa da. Ume asko badira, umeek dinamika harrapatu dutenean taldea bi korrotan banatu daiteke parte-hartzea areagotzeko.

Azkenengo jolasa, proiektu honetarako zehazki asmatu da, eta besteengandik ezberdintzen da, kasu honetan sormena ez delako soinuaren edo musikaren ekoizpenaren bitartez lantzen, baizik eta mugimenduaren eta gorputz adierazpenaren bitartez; musikak eta isiluneak ekintzetarako denborak markatuko dituzte.

7. jolasa: Lorez lore (Korro jolasa) 15'

Partaideak borobilean daude; erdian dagoena bueltak emango ditu borobilaren barnetik. Abestia amaitzean aurrean dagoenari galdetuko dio: “Zer zara, liztorra ala erlea?” Liztorra esaten badu, kanpokoak barrukoa harrapatu beharko du eta honek bere lekua kendu. Berriz, erlea esaten badu, bi umeek erlearen soinua imitatuko dute, eta beste partaideengana hurbilduko dira loreak balira bezala, ukitzen eta usaintzen.

- Abestia (ahotsa)
- Sormena: gorputz adierazpena eta animalien soinuen imitazioa (“evocaciones sonoras”)

8. jolasa: Ispilu-estatuak 10'

Umeak libre mugituko dira espaziotik musikarekin. Musika gelditzen denean, bikote bat bilatu beharko dute. Bion artean gorputz-postura jakin bat adostu behar dute eta musika berriz hasi arte mantendu.

- Musika lan instrumentala edo abestia (grabazioa)
- Sormena: gorputz adierazpena. Dantza.
- Gorputz eskema
- Materiala: Kasetea, umeentzako musika lan instrumentala edo abestia (dinamikoa, mugimena eta dantza bultzatzeko).

| | | | |
|----------|-----------------------------------|----------|---------------------|
| 1. saioa | Zubiri-zubiri: dantza ala abestu? | 3. saioa | Urtxintxaren jolasa |
| | Orkestra zuzendaria | | Joxe Martin |
| 2. saioa | Sokaz beheraka olatuena | 4. saioa | Lorez lore |
| | Pasazazu haria | | Ispilu-estatuak |

1. taula. Jolasen sekuentziak

4.- Bizipenaren ebaluazioa eta ondorioak

4.1 Bizipenaren ebaluazioa, jolasez jolas

1. saioa / 2014-05-26

Andereñoak alde zuzenetik azaldu die umeei zenbait egunetan etorriko nintzela haiekin jolas batzuk egitera, beraz zuzenean hasi izan ahal gara jolasekin.

1. jolasa: Zubiri-zubiri: Dantza edo abestu?

Jolasa ezaguna zuten, beraz, berehala hasi gara. Zoz egin dugu zubiarena egingo zuten bi umeak aukeratzeko. Ez dute arazorik izan landu dugun aldaerarekin, hau da, ume "harrapatuak" gustuko janaria aukeratu beharrean, dantza edo abestea nahiago dute. Noizean behin gogoratu behar izan zaie zubiko umeei, bakarrik galdetu ahal diotela ume harrapatuari "abestu edo dantza" nahi duen (bestela badagoelako arriskua zubiko alde bat edo bestea aukeratzea lagunak non dauden arabera).

Aipatzekoa da adin honetan bi gauza aldi berean egiteko daukaten zailtasuna. Abestia bazekiten gehienek, baina bakarrik abestu egiten zuten abestu ahal zutela gogorarazten zitzaizkion; hurrengo aldian, berriz zubi azpitik pasatzen eta saltoka ibiltzean jartzen zuten arreta osoa.

Azkenean, talde batekoek zubiri-zubiri abestu dute bitartean, besteek dantza librea egin dute. Atal honetan, ezberdintasun batzuk egon dira ume batzuen eta besteen artean, eta, normala denez, izaera irekiagoa dute umeei ozenago abestu egiten dute eta alaitasun handiagoz egin dute dantza.

2. jolasa: Orkestra zuzendaria

Jolas hau berria zen umeentzat, horregatik, azalpen txiki bat beharrezkoa izan da.

Hemen zailtasunak espazioaren antolaketaren inguruan egon dira. Haurrak borobilean egon dira, guztiek zuzendaria ikusi ahal izateko. Baina konturatu gabe, umeak behin eta berriro aurrera egiten zuten zuzendaria hobeto ikusteko, une oro imitatu behar baitzuten. Ondorioz, ume batzuk besteen atzean gelditzen ziren eta ezin zuten ondo ikusi. Sarritan esan behar izan zaie atzerago joateko, guztiek ikusi ahal izateko. Etorkizunean, hau konpondu liteke jolasa patioan egiten eta klarionaz zoruan borobil bat egiten, umeei erreferentzia espaziala izan dezaten.

Beste zailtasun bat, asmatu behar zuen umearen kokapenean izan da. Hasieran, borobilean kokatu izan zaio, horrela beste guztiak begirada batez ikusi ahal dituelako.

Baina ume guztiei begiratu beharrean, bakarrik aurrekoengan finkatzen zuen begirada, hortaz, ezinezkoa zuen zuzendaria nor zen asmatzea bere ondoan zegoenean. Ondoren, “asmatzailea” borobilaren erdian kokatu da. Baina kokapen hau ere ez da eraginkorra izan, bere atzean gertatzen dena ezin baitzuen ikusi. Horrez gain, bi alditan umeek zuzendaria nor den salatu izan dute, nahi gabe komentarioak egitean, adibidez, zuzendaria pentsatzen ari zen bitartean, esan diotenean “Benga, Naia!”.

Parterik aberasgarriena, agian, instrumentuen hotsak imitatzea izan da, instrumentu berbererako hots ezberdinak entzun baitira eta mimikaz lagundu baitute ahotsa. Hainbeste ahots desberdinekin aritzean, soinua nahiko ozena izan da eta kanpotik zertxobait kaotikoa eman zitekeen; baina hau aurreikusita zegoen: asmoa beraien instrumentuekiko pertzepzioa erabiltzea izan da, irakaslearen influentzia eta adibiderik gabe. Baina irakaslearen asmoa guztientzat hots bera sortzea bada, adibidea egin dezake bere ahotsarekin, umeek imitatu dezaten.

Beraz, jolasean aipatutako zailtasunak, bi arrazoiengatik izan daiteke:

1. Jolas berria denez, gehiagotan jolastu behar direla, zer egin dezaketan eta zer barneratu dezaten.
2. Bost urterekin oraindik txikiak direla, eta jolasa aproposagoa izan daiteke sei edo zazpi urteko umeentzat.

Jolas bietan azpimarratzekoa izan da umeen parte hartzeko gogoia, bi jolasen aurretik zotz egitean jolasen barruko rolak bereizteko, ia guztiek altxatu dutelako eskua zozketan parte hartzeko. Amaitzean ebaluaketa bete dute (1. Eranskina). Agur esatean noiz bueltatuko naizen galdetu didate. Beste egun batean jolas berriak egingo ditugula esan diet eta pozik joan dira.

2. saioa / 2014-05-28

3. jolasa: Sokaz beheraka (sokasalto)

Hasteko, esan behar dut patiora heldu naizenean haurrak nire izena abesten hasi direla, aurreko saioa oso gustukoa izan zutenaren adierazgarri.

Ondoren, biribilean eseri egin gara eta sokasaltoan behar diren elementuei buruz galdetu diet (aurrezagutzak). Erantzunak ondokoak izan dira: soka, bi pertsona sokari eragiten, pertsona bat salto egiten, umeen ilara (salto egiteko zain daudenak) eta abestia. Guztiok prest jarri dira (sokakoak, salto egin behar zuena eta ilaran zeudenak)

eta gorputz perkusioarekin hasi gara. Ea musika instrumentu bat ikusten zuten galdetu diet; ezetz esan dute. Orduan, txaloak ematen hasi naiz, bularrean eskuekin kolpeak ematen... Orduan ulertu dute gorputza instrumentu bezala erabili dezakegula. Sormena oso handia izan da, eta gorputzeko atal ugari proposatu eta erabili dituzte: eskuekin hankak jo, aurpegia, burua, oin batekin zorua jo, oin batekin bestea jo, hatzez kriskitin egitea, etab. Sokasaltoari hasiera eman behar zitzaion bakoitzean, ume batek gorputz perkusioko mugimendua proposatzen zuen.

Sokasaltoko partean ez da aparteko arazorik izan, nahiz eta ume batzuen eta besteen artean trebetasun maila ezberdinak egon. Neskek hobeto egin dute salto orokorrean, agian sokasaltoan jolasten ohituago daudelako.

4. jolasa: Pasazazu haria

Umeek lerroa egin dutenean, ondoren beharko ditugun “hitz magikoak” aukeratu ditugu, sol eta la notak erabiliz (bi nota bakarrik aukeran jarri zaizkie, aukerak zabalegiak ez izateko eta modu sinplean egiteko. Halaber, beltzak bakarrik erabili dira). “Sol-sol-sol-la-sol” izan dira hitz magikoak. “Gero ikusiko dugu zertarako beharko ditugu” esan diet irrika mantentzeko. Afinazio maila ezberdinak egon dira, baina bi notek altuera ezberdina dutela atzematerekin nahiko da kasu honetan.

Denak eskuetatik helduta eta prest zeudenean, lehenengoari eskua eman diot eta ilararen buruan jarri naiz, hasiera gidatzeko (ume asko daudenean ilararen lehenengoak eta azkenak korapilatu egiten baitira). Hasieran, umeen eskuen artean pasatzean, askatu egiten ziren, baina hirutan egitean, ez dira gehiago askatu. Ilaran umeen erdian zegoenean gutxi gorabehera, kendu egin naiz, beraiek bakarrik jolasteko. Oso azkar ikasi dute dinamika eta aurrera jarraitu dute. Azkenean, denak lotuta geratu direnean, hitz magikoak esan ditugu birritan, eta askatu egin dira.

Jolas hau bereziki gustatu zaie, eta klaserako bidean, taldetxoak egin dituzte jolasean bezala eskuak elkarri emanez.

3. saioa / 2014-05-29

5. jolasa: Urtxintxaren jolasa

Umeez ezaguna zuten jolasa, beraz, berehala jardunean jarri gara. Normalean, jolas honetan, ume batzuei (bereziki mutilei) lotsa ematen die beste norbaiti musu ematea;

hala ere, erabili dugun jolasaren aldaera honetan, prestuago zeuden musua eman edo jasotzeari, jakin dutenean ondoren bazeukatela musika instrumentuak jotzeko aukera. Instrumentuak jotzerakoan, umeei nahi duten bezala jotzea utzi diet. Hala ere, batzuk ez zeukaten argi zer egin; kasu horietan, ideiak eman dizkiet instrumentuak era ezberdinetan jotzeko (adibidez, marakak eskuaren kontra jo, buruaren kontra, oinen kontra, etab.). Honenbestez, uste dut sormena lantzerakoan, umeei ez zaiela beti askatasun osoa eman behar. Ideia ona izan daiteke proposamenak egitea eta galderen bitartez kuriositatea sortzea (adibidez, “nola joko zenuke instrumentua beste era batean?”).

6. jolasa: Joxe Martin

Hasi baino lehen, aurreko eguneko jolasean erabili ditugun gorputz perkusioko mugimenduak birpasatu ditugu, ondoren erabiltzeko. Jolasa hasieratik gustatu zaie.

Lehenengo alditan ikusi dut nola umeak gorputz perkusioko zatia inprobisatu behar zutenean, segundo batzuetan geldi geratzen zirela mugimenduak pentsatzen; hau ez gertatzeko, eta dinamikoagoa izateko, jolasa hasterakoan egingo zituzten mugimenduak pentsatzeko esan diet; hortik aurrera, abestia berriro jarri aurretik, Joxe Martin izan behar zen umeari galdetu izan diot ea mugimenduak pentsatua zituen. Horrela, helburua lortu dugu eta jolasa dinamikoagoa izan da.

Gaurkoan, gorputz perkusioko mugimenduak ez dira aurreko egunekoan bezain askotarikoak izan. Hau izan daiteke, alde batetik, musikak eta dantzak pisu asko hartzen duelako umeen buru-jardueran, eta, bestetik, ez dugulako behar bezainbeste denborarik izan etxera joateko ordua heldu zaigulako; agian, jolasa aldi gehiagotan eta beste egun batzuetan eginez, mugimen aukera gehiago bururatuko zaizkie.

4. saioa / 2014-06-03

7. jolasa: Lorez lore

Borobilean, abestia bi aldiz abestu dugu. Ondoren, jolasean, abestu behar den beste jolasetan bezala gertatu da: hurreri gogorarazten bazaie abesteko, abestu egiten dute, bestela, ahaztu egiten dira. Umeei jolasa gustatu zaie, baina hogeita hiru ume egon direnez korruan, parte-hartzeko aukerak ez dira handiegiak izan. Hala ere, lehenendabiziz jolasteko, denok batera egitea komenigarria izan daiteke; beste egun

batean eginez gero, hogeita hiru umeko taldean hiru korru txikiago egitea gomendatuko nuke.

Gehienek “erlea” izatea aukeratu dute, beraz, erleak imitatu dituzte sarritan. Mutilen erdiak gutxi gorabehera bakarrik erlea izatea aukeratu duten bitartean (beste erdiak, liztorra), neska guztiek erlea aukeratu dute. Honek aditzera eman lezake mutilek mugimendu eta intentsitate handiagoko jarduerak nahiago dituztela, harrapatzaileak izan nahi baitute; neskek ordea, nahiago izan dezakete jolas lasaigoak eta sinbolikoak. Erleak imitatzean, ume bakoitzaren nortasuna igartzeko aukera egon da; batzuk, besteak usaintzera joatean, lotsati agertu dira; beste batzuk, ordea, askoz ere konfiantza handiagoarekin ibili dira.

8.jolasa: Ispilu-estatuak

Jolas honetarako ume-abesti bizia aukeratu da, eta umeak berehala hasi dira espaziotik libre mugitzen, korrika, saltoka eta dantza eginez. Nahiz eta atal hau sormena garatzeko berez prestatua ez egon, ikusi da nola umeek oso modu ezberdinetan mugitu diren, mugimenduak inprobisatzen.

Bigarren atalean, musika gelditzean eta ispilu-estatuak egitean, sormenaren garapena ikusi da: lehengo aldian postura sinpleak izan dira, ondorengoetan, jarrerak gero eta elaboratuagoak izan dira, eseri egin dira, etzan, etab. Postura berrien aurkikuntzarako, batzuetan norberaren eta bikotearen inprobisazioa erabili dute, beste batzuetan, aldiz, klasekideen posturak imitatu dituzte.

Jolas honetan postura batzuen zuzenketa egin dut, bikoteak ispilu batean bezala ipini ez direnean, gorputz eskemaren kontzientzia hobetzeko asmoz.

4.2 Ondorioak

Proiektu hau praktikan jarri eta gero, esan daiteke umeak sormena musikaren eta mugimenduaren bitartez erabiltzea eta garatzea lortu dela. Garapen hau, jolas askoren praktikan ikusi da: jolasak hastean umeek sormen ahalmen ez oso handia erakutsi dute, baina, jarduera joan ahala, sormen aukerak biderkatuz joan dira, alde batetik konfiantza hartu dutelako eta honek esperimentaziorako bidea eman diolako; bestetik, irakaslearen proposamenengatik, haurrek imitatu dituztelako eta ereduak ideia berriei bidea eman dietelako.

Aipatutako irakaslearen ereduak eta adibideak, batzuetan ez dira alde aurretik prestatuak egon, baina egoera zehatzetan, beharrezkoak izan dira: sormenaren aukerak oso zabalak direnez, haur batzuek ez dira seguru sentitzen eta blokeatu egiten dira. Hau haur txikiek sormena erabiltzeko ohitura ez dutelako izan daiteke. ikasgelan, normalean, agindu zuzenak eta erreferentzia argiak ematen zaizkie (“egin hau eta modu honetan”), horregatik, aukeratzeko edo sormena erabiltzeko eskatzen zaienean, ez dute argi nola jokatu. Konfiantza har dezaten, beraz, irakasleak adibide eta ideia berriak proposatu ditu. Honengatik, ondoriozta daiteke segurtasuna sormena garatzeko ezinbesteko baldintza dela.

Umeen erantzunari dagokionez, esan daiteke proiektua arrakastatsua izan dela. Ikasleek saio bakoitzaren amaieran ebaluazioa egin dute (1. eranskina) eta guztiek gustura egon direla adierazi dute. Salbuespen bezala, ume batek egunero kili-kolo pasatu duela esan du; hau zertxobait harrigarria izan daiteke, jolasetan ageriz ondo pasatu duelako eta parte-hartze handia izan duelako. Baliteke umeak nire atentzioa deitu nahi izana, gainontzekoak niri ebaluazioa eman eta berehala alde egiten zuten bitartean, berak ematen didan guztietan nire erreakzioaren zain geratu baita une batez. Diziplina arazo larririk ez da egon eta haurren artean errespetua izan da nagusi. Jarrera positiboa izan dute beti eta jolasen ulermena ez da arazo izan, irakaslearen ebaluazio taulan ikus daitekeenez (2. eranskina). Modu berean, jolasen bilduma bost urterako egokia izan da, nahiz eta sokasalto jolasean, “Sokaz beheraka” izenekoan, zailtasun batzuk izan, aurreko atalean adierazi den bezala.

Hemen proposatu diren jolasak, behin bakarrik eraman dira praktikara; hala ere, ikasgelan denbora luzeagoa izanez gero, jolasak beste zenbait saioetan zehar errepikatzea komenigarria litzateke, horrela, eta segurtasun kontuari berriz bueltatuz, sormen aukerak areagotu egingo dira, umeek jolas ezagun eta familiarretan jardungo baitira. Bestalde, jolas bilduma hau jolas gehiagorekin osatu daiteke, modu honetan, ikasturte osoan zehar sormena musikaren eta mugimenduaren bidez lantzeko aukera izango dugu. Halaber, ikasle gazteagoei ere egokitu ahal zaie, adinerako egokiak diren jolasak aukeratzeko badira; edota ikasle nagusiei, jolas hauek berauek lehen hezkuntzako lehenengo zikloan ere ondo funtzionatzea espero baita.

Nire aldetik, oso gustura sentitu naiz une oro umeekin praktikan. Umeen harrera onak lana erraztu dit, eta beraien energia kutsakorrek egunero aurrera jarraitzeko gogoia

indarberritu dit. Badaukat, halaber, etorkizunean irakasle bezala proiektu hau aurrera eramateko asmoa, garatzen eta zabaltzen.

Amaitzeko, esatea proiektu hau ez dela zertan musika eta mugimenduarekin mugatu behar; irakasleak hala baderitzo, haur hezkuntzako beste arloekin integratu daiteke, hala nola, arte plastikoak, zientziak, etab. Hori egiteko, irakasleak berak sormena erabili beharko du dena modu egokian "nahasteko". Izan ere, sormena ere bada irakasleek izan beharreko gaitasuna.

5.- Erreferentzia bibliografikoak

- Agudo, D., Mínguez, R., Rojas, C., Ruiz, M., Salvador, R. eta Tomás, J. (2009). *Juegos de todas las culturas: juegos, danzas, música... desde una perspectiva intercultural*. Barzelona: INDE.
- Akoschky, J. (2005). Los "cotidiáfonos" en la educación infantil. *Eufonía*, 33, 20-30.
- Barandiaran, J. M. eta Manterola, A. (1993). *Juegos infantiles en Vasconia*. Bilbo: Etniker Euskalerrria, Eusko Jaurlaritzza, Nafarroako Gobernu.
- Conde, J.L., Martín, C. eta Viciano, V. (1997). *Las canciones motrices: metodología para el desarrollo de las habilidades motrices en educación infantil y primaria a través de la música*. Barzelona: INDE.
- Conde, J.L., Martín, C. eta Viciano, V. (1998). *Las canciones motrices II: metodología para el desarrollo de las habilidades motrices en educación infantil y primaria a través de la música*. Barzelona: INDE.
- Cordantonopulos, V. (2002). *Curso completo de teoría de la música*. 2014-05-20an hartua, hemendik: <http://espanol.free-ebooks.net/ebook/Curso-completo-de-teoria-de-la-musica/pdf?dl&preview>
- Delalande, F. (1995). *La música es un juego de niños*. Buenos Aires: Ricordi Americana SAEC.
- Forseth, J. O. eta Weikart, P. (2001). *Música y movimiento: actividades rítmicas en el aula*. Barzelona: Graó.
- Fuentes, S. (2008). *Pedagogía de la danza*. Getxo: Asociación cultural danza Getxo.
- Jurado Luque, J. (1996). El cuerpo y el movimiento en la expresión musical. *Eufonía, didáctica de la música*, 3, 31-44.
- Lleixa Arribas, T. (2000). Motrizitatea eta gorputz adierazpena. Lleixa Arribas, T. eta Antón Rosera, M.-n, *Haur Hezkuntza 0-tik 6 urtera* (11-80). Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Schafer, R.M. (1986). *El compositor en el aula*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R.M. (1998). *Limpieza de oídos: notas para un curso de música experimental*. Buenos Aires: Ricordi.
- TED. (2007, urtarrilak 7). *Sir Ken Robinson: Do schools kill creativity?* 2014-04-14an hartua, hemendik: <http://www.youtube.com/watch?v=iG9CE55wbtY>
- Wallon, H. (1980). *Psicología del niño. Una comprensión dialéctica del desarrollo infantil*. Madrid: Pablo del Río.

ERANSKINAK

1. eranskina: Ikasleek egindako ebaluazioa²

Nola pasatu dut klasean? Inguratu.



| | Ondo | Kili-kolo | Txarto |
|----------|------|-----------|--------|
| 1. saioa | 21 | 2 | - |
| 2. saioa | 21 | 1 | - |
| 3. saioa | 21 | 1 | - |
| 4. saioa | 21 | 1 | 1 |

Taula. Ikasleek egindako ebaluazioa

² Papera aurrezteko, umei banatzerakoan folio bakoitzean hiru aldiz kopiatu dira aurpegitxoak, eta folioa hiru zatitan banatu da.

2. eranskina: Irakasleak egindako ebaluazioa

Zubiri-zubiri: Dantza edo abestu?

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

Orkestra zuzendaria (2014-05-26)

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

Sokaz beheraka olatuena (sokasaltoa)

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

Pasazazu haria

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

Urtxintxaren jolasa: instrumentuak arakatzen

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

Joxe Martin

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

Lorez lore

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

Ispilu-estatuak

| | | | | | |
|-------------------|------------|-----------|---------|-----|---------|
| Ulermena | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| Jarrera | Oso txarra | Txarra | Erdizka | Ona | Oso ona |
| 5 urterako egokia | Ez | Kili-kolo | | Bai | |

3. eranskina: Jolasen abestien letrak eta praktikako argazkiak

Zubiri-zubiri

Zubiri-zubiri, nongori-nongori,

nongo alkate zara zu,

Frantziako erregearen seme-alabak gara gu,

zubi hontatik, pasatzen dena, hemen geldituko dela,

Hemen geldituko delaaaaa...!



1. irudia: Zubiri-zubiri

Orkestra zuzendaria



2. irudia: Orkestra zuzendaria

Sokaz beheraka olatuena

Sokaz beheraka zingili zangala,
matxinsaltoa bagina bezala,
trebukatzen ez bazara berehala,
hurrengo laguna sar dadila,
bai...orain!



3. irudia: Sokaz beheraka

Pasazazu haria

Pasazazu haria, dendaria, maitia,

pasazazu haria, denbora badoa, tralara.



4. irudia: Pasazazu haria

Urtxintxaren jolasa

Urtxintxaren jolasa da,
ezkuta ezazu eskua,
bestela ematen badizu,
musu eman beharko duzu.



5. irudia: Urtxintxaren jolasa

Joxe Martin

Joxe Martin, badoala mendira,
Joxe Martin, badoala mendira,
Riarriakataplan, badoala mendira.
Eta bidean krabelinak hartu ditu
eta bidean krabelinak hartu ditu
Riarriakataplan, krabelinak hartu ditu.
Erreka bazterrean topatu du lamia

Erreka bazterrean topatu du lamia

Riarriakataplan topatu du lamia.

LAMIAK:

O! Gaztetxo emadazu lore bat.

O! Gaztetxo emadazu lore bat.

Riarriakataplan emadazu lore bat.

GAZTEAK:

Emango dizut nirekin ezkonduz gero.

Emango dizut nirekin ezkonduz gero.

Riarriakataplan nirekin ezkonduz gero.

BIAK:

Ezkondu ziren eta Txinan bizi dira.

Ezkondu ziren eta Txinan bizi dira.

Riarriakataplan eta Txinan bizi dira.



6. irudia: Joxe Martin

Lorez lore

Lorez lore nabil zup eta zup

lorez lore nabil zup eta zup

morea edo hori zup eta zup

larrosa edo lili zup eta zup

Lorez lore nabil zup eta zup

Lorez lore nabil zup eta zup

Liztorra ala erlea ote?

Liztorra ala erlea ote?



7. irudia: Lorez lore

Ispilu-estatuak



8. irudia: Ispilu-estatuak

4. eranskina: Esker ematea

Eskerrak eman nahi dizkiot Ana Urrutiari, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako musika irakaslea eta GAL honen zuzendaria, bere laguntzarik gabe, batez ere musika arloan, ezinezkoa litzateke lan hau.

Alfredo López de Sosoagari, Gasteizeko Irakasleen Unibertsitate Eskolako heziketa fisikoko irakaslea, jolasaren garrantzia birgogorazteagatik, lan honetan nire jatorrira hezitzaile bezala bueltatzea ahalbidetu dit.

Carolina Ortigari, lagun mina eta klasekidea Haur Hezkuntzako graduan, musika arloarekin laguntzeaz gain, gure elkarrizketetan ideia pedagogiko asko sortu dira.

Eta azkenik, Amaia Rodríguezi, Alkartu Ikastola Publikoko irakaslea, eskolako praktikan erraztasun posible guztiak emateagatik.